



CARITASEN KANPAINA

2016.eko IRAILAren 25a

URTEAN ZEHARREKO XXVI. DOMEKEA (C)

**“Caritas Bizkaia, 60 urte Justizia-
ren alde: ESKERRIK ASKO!”**

**“BAT EGIN,
BAT IZAN”**

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Lagungarri honeek alkarte bakotxaren inguruabarretara egokitzea ezinbestekoa dala gogoratu gurako geunke. Horretarako, Caritasetik bialtzen diran materialak irakurtea komeni da.
- ✚ Egokia da kartelak sasoiz ipintea eta aurreko domekan jardunaldia iragartea.
- ✚ Ondo legoke parrokiako Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan buru-belarri jardutea.
- ✚ Jardunaldi eta kolekten ospakizunerako emondako jarraibideak errespetatuz, gaurkoa sarrerako oharrean, Jaungoikoaren herriaren otitzean eta diru-batzearen aurreko oharrean aitatu dogu.
- ✚ Homiliaren oinarria, beti lez, hots egindako Jaungoikoaren Hitzza izango da. Kanpaina egokitasunez aurkezteko eta txertatzeko, irakurri, arren, Caritasek bialtzen dituan lagungarriak.

HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok:

Domekero konbidatzengaitu Jaunak, Eukaristia-
ren mahaian parte hartu daigun eta batasun eta se-
nidetasunaren zubien sortzaile izan gaitezaz.

“Bat egin, bat izan” dinosku Caritasek gaurko jar-
dunaldian. Gizadi lez aurrera egin gura badogu, bi-
zirik iraun gura badogu, bat egin eta senideen alkar-
tea eratu behar dogu.

Hasierako kristau alkarteen eredu eta lekukota-
suna dogu eragile eta suspertzaile. Eurak, Espiritu
Santuaz beteta, euren sasoiaren egin ebena geure XXI.
gizaldian gauzatzea da gure ametsa: “Fededun
guztiak alkartuta bizi ziran, eta dana danentzat eu-
kien: euren lur eta ondasunak salduta, guztien ar-
tean banatzen eben dirua, nork zer behar eban”.
“Guztion etxe” izango dan “bestelako mundu” hori
hedatu gura dogu.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

25 de SEPTIEMBRE de 2016

XXVI DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (C)

**“Cáritas Bizkaia, 60 años traba-
jando por la Justicia: ¡GRACIAS!”**

**“CONSTRUYENDO
BIEN COMÚN”**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten a las cir-
cunstancias de cada comunidad. Para ello es muy conveniente leer
los materiales que se envían desde Cáritas.
- ✚ Es muy oportuno poner los carteles con tiempo y avisar de la Jornada
el domingo anterior.
- ✚ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas de la parroquia participara
activamente en las celebraciones de hoy.
- ✚ Respetando las orientaciones dadas para la celebración de las Jorna-
das y colectas, hacemos mención de la de hoy en la monición inicial,
en la oración de los fieles y en la monición que motiva la colecta.
- ✚ La homilía se basará, como de ordinario, en la palabra de Dios procla-
mada. Para la oportuna aplicación y referencia a la Campaña sugerimos
la lectura de los materiales que Cáritas envía.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos:

Cada domingo somos invitados por el Señor a
compartir la mesa de la eucaristía y crear puentes de
unión y fraternidad.

La Jornada de Cáritas nos dice hoy: “Llamados a
ser en común”. Si queremos sobrevivir como huma-
nidad, estamos llamados a ser en común, a vivir for-
mando comunidad fraterna, a construir bien co-
mún...

Nos mueve y empuja el modelo y testimonio de
las primeras comunidades cristianas. Nuestro sueño
es encarnar en nuestro siglo XXI lo que ellas, empa-
padas de Espíritu Santo, hicieron en su tiempo: “*Los
creyentes vivían todos unidos y lo tenían todo en
común; vendían posesiones y bienes y lo repartían
entre todos según la necesidad de cada uno*”. Que-
remos ser *contagiosos* de ese “otro mundo posi-
ble” que sea “Casa Común” para todos.





Eskerrak emongo deutsaluz Jaungoikoari, Bizkaiko Caritasen 60 urteko historian zehar Zuzentazunaren alde jardun izan daben eta jarduten daben gizon eta emakume guztiengaitik, mundu bikaina eratzen diharduen gizon eta emakume bikainengaitik.

SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deutsaluz ospakizunari...

ABADEAREN AGURRA

Jauna, gure bihotzak Jaungoikoa eta lagun hurkoa maite daiguzan zuzentzen dituana, zuekin.

DAMU OTOITZA

Ospakizuna hasieran, eskatu deiogun Jaungoikoari gure bihotz-barritzeko. (*Isilunea*)

- Gu aberasteko behartsu egin zinana:
Erruki, Jauna.
- Behartsu eta baztertuen artean maitasunezko eredu zarana: *Kristo, erruki.*
- Bihotz-barritzeko dei egiten deuskuzuna:
Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Am 6, 1a.4-7)

Amos profetaren orakuluak aberastasunen kalteen inguruan ohartarazoko gaitu. Inori kalterik egin ez arren, euren konfiantza aberastasunetan jarten daben eta inguruan gertatzen danaz ohartu barik aberastasun horreez gozaten daben aberatsez dihardu profetak. Ardurabakeria horrek Jaungoikoa alde batera iztea be badakar.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1Tm 6, 11-16)

Fedea kristinauaren hiru ezaugarri esanguratsuri lotuta dago: maitasunari, itxaropenari eta samurtasunari. Zuzentasuna eta errukia gauzatzeak zerikusia dau besteakazko eta Jaungoikoagazko hartu-emonagaz. San Paulok Timoteori egiten deutsaluz dei hau geuri egingo dako dei lez entzun daigun.

Damos gracias a Dios por todas las personas que en los sesenta años de existencia de Caritas Bizkaia han trabajado y trabajan por la Justicia. Personas extraordinarias construyendo un mundo extraordinario.

CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que dirige nuestros corazones para que amemos a Dios y al prójimo, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. (*Instantes de silencio*)

- Tú, que te hiciste pobre para enriquecernos: *Señor, ten piedad.*
- Tú que eres ejemplo de amor a los pobres y marginados: *Cristo, ten piedad.*
- Tú, que nos llamas a la conversión: *Señor, ten piedad.*

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (Am 6, 1a.4-7)

Escuchamos un oráculo del profeta Amós sobre los perjuicios de las riquezas. El profeta se refiere a los ricos que no hacen daño a nadie, pero ponen su confianza en las riquezas y disfrutan de ellas sin preocuparse de lo que ocurre a su alrededor. Su despreocupación es también olvido de Dios.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (1Tm 6, 11-16)

La fe se encuentra asociada al amor, a la esperanza y a la delicadeza, virtudes fuertes características del cristiano. Practicar la justicia y la piedad hace referencia a las relaciones con los otros y con Dios. Escuchemos esta exhortación de San Pablo a Timoteo como una llamada dirigida también a nosotros.

OHARRA EBANJELIOARI (Lk 16, 19-31)

Biblian jasoten danaren arabera, inor ez da daukanaren jaube. San Lukas ebanjelariaren arabera, mundu honetako ondasunei uko egi-tea ezinbestekoa da Kristoren ikasle izateko. Danok bete behar dogu Jaunaren agindua: bes-teenganako maitasuna eta, batez be, behartsuenganako maitasuna.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Zabaldu deiegun gure bihotza gizon eta emakume guztien beharizanei eta aurkeztu deiogun konfiantza osoz gure otoitza behartsu eta baztertuagandik hurrán dagoan Aitari:

- Munduan batasuna, maitasuna eta bakea suspertzeaz arduratu behar dauan Eleizearentzat inor ez daitela arrotz izan.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasek, bertako boluntario eta beharginek, etsi barik jardun daiela axolabakokeriari aurre egingo deutzan eta aldeak ezabatu dituan gizarte ereduaren alde.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Danok autortu daigun edozein bazterketa jasaten dabenen duintasuna eta euren eskubi-deak errespetatu daiguzala

Eskatu deiogun Jaunari.

- Ahaltsuek eskuzabaltasunez eta arreta eskainiz jokatu daiela krisiaren ondorenak jasaten dabena eta behartsuenek izan daiela gure laguntza. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko V. Egitasmoaren haritik, kursoaren hasiera honetan hiru arlotan jarri daigula arreta: Jaungoiko-agan, kanpoaldeetan eta geure buruagan.

Eskatu deiogun Jaunari.

Behartsuari bere izenez deitzen deutzazun Aita Jaungoikoa, entzun gure otoitzak eta emon indarra besteen beharizanez jaubetuz bizitzeko. *Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritas babestuz, gure ahalegin, ahots eta adorea jarriz, guztion ona hedatuko dogu.

MONICIÓN al EVANGELIO (Lc 16, 19-31)

Según la tradición bíblica nadie es realmente propietario de lo que posee. El evangelista san Lucas hace del desprendimiento de los bienes terrenos una exigencia indispensable en la vida de los discípulos y discípulas de Cristo. Todos hemos de guardar el mandamiento del Señor: el amor a los demás, especialmente a las personas en situación de pobreza.

ORACIÓN UNIVERSAL

Abramos nuestro corazón a las necesidades de todas las personas y presentemos nuestra oración confiada al Padre que está cerca de quien es pobre y siente la exclusión:

- Que para la Iglesia, encargada de promover en el mundo la unidad, el amor y la paz, nadie sea indiferente para su ministerio ni extraño a su corazón. *Roguemos al Señor.*

- Que Cáritas y quienes trabajan y colaboran en ella no se cansen nunca de trabajar por un modelo social en el que se plante cara a la indiferencia y se ponga freno a las diferencias. *Roguemos al Señor.*

- Que todos reconozcan la dignidad y respeten los derechos de quienes son víctimas de cualquier discriminación. *Roguemos al Señor.*

- Que los poderosos sientan la llamada al desprendimiento, la atención a quienes más sufren los efectos de la crisis, y que las personas necesitadas sean favorecidos con el apoyo de nuestra ayuda generosa. *Roguemos al Señor.*

- Que nosotros, al comenzar este nuevo curso, con el V Plan Diocesano de Evangelización, optemos por ser una Iglesia en salida con tres focos principales de atención: Dios, las periferias existenciales y nosotros mismos.

Roguemos al Señor.

Dios Padre, que llamas por su propio nombre al pobre, escucha nuestras oraciones y danos fuerza para vivir atentos a las necesidades de los demás. *Por Jesucristo, nuestro Señor.*

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Respaldando a Cáritas, poniendo nuestro esfuerzo, nuestra voz y nuestro ánimo, construimos bien común.





Gaur batzen dan dirua **Eleizbarrutiko Caritasentzat** izango da. Onuradun guztien izenean, **ESKERRIK ASKO** zuon eskuzabaltasunagaitik.

HAUSNARKETA

202. Gauza askoren norabidea aldatu beharko geunke, baina, batez be, gizadiak dau aldatu beharra. Jatorri eta etorkizun bera doguzala, alkarren erantzule garala konturatu behar dogu. Honetaz jaubetuko bagina, uste sendo, jarrera eta bizimodu barriak garatuko geunkez. Kultura, espiritu eta hezkuntzari jagokonez, erronka handia da, beraz eta horrek birsorkuntza prozesu luzeak ekarriko deuskuz.

204. Munduaren gaur egungo egoerak «norberekoike-ria orokorra dakarren ezegonkortasun eta segurtasunik ezezko sentsazioa eragiten dau». Gizon-emakumeak bere burua erreferentzia hustzat hartzen dauanean eta bere kontzientzia isolatzen danean, areagotu egiten da bere grina, bere gogortasuna. Zenbat eta hutsago egon bihotza, orduan eta gauza gehiago behar dau erosteko, eukiteko eta kontsumitzeko. Testuinguru honetan, inork ez dau onartzen errealidadeak markatutako mugarik. Eta zerumugan ez da guztion onik antzematen. Era horretako gizabanakoak ugaltzen badira gizartean, norbere beharrianakaz kontraesanean ez dagozanean baino ez dira errespetatuko arauak. Horregaitik, gerta- era klimatiko izugarrien edo hondamendi natural handien aukera hor dala kontuan hartzeaz gainera, beste hondamendi batzuetan be pentsatu beharko dogu, hain zuzen be, gizarte krisietatik eratorritako hondamendietan, biziera kontsumistaren irrikak, batez be horri eusteko gauza diranak gitxi batzuk diranean, alkarrenganako indarkeria eta suntsiketa ekarriko ditualako.

208. Beti garatu daiteke norberagandik besteagana urteteko gaitasuna. Gaitasun hori barik ezin deutsegu gainerako izakiei euren balioa autortu, ez jaku interesatzen zerbait besteentzat zaintzea, ez dogu sufrimentua edo inguruko gauzen hondatzea saihesteko mugak jarteko ahalmenik. Nork bere burua gaintitu, kontzientzia isolatua eta norbere burua erreferentzia hustzat hartzea gaintitu... nahitaezkoa da besteak eta ingurumena zaintzea funtsezkoa dala ikusteko eta horretan aritzeko eta gure ekintza eta erabagiek inguruan daben zirrarez jaubetzeko eta, ondorioz, zentzuz jokatzeko. Individualismo gaintitzeko gauza garenean garatuko dogu bestelako bizimodu bat, gizartean aldaketa esanguratsua eragingo dauan bizimodua.

La colecta de hoy será destinada a **Cáritas Diocesana**. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad, **GRACIAS** por vuestra generosidad.

REFLEXIÓN

202. Muchas cosas tienen que reorientar su rumbo, pero ante todo la humanidad necesita cambiar. Hace falta la conciencia de un origen común, de una pertenencia mutua y de un futuro compartido por todos. Esta conciencia básica permitiría el desarrollo de nuevas convicciones, actitudes y formas de vida. Se destaca así un gran desafío cultural, espiritual y educativo que supondrá largos procesos de regeneración.

204. La situación actual del mundo «provoca una sensación de inestabilidad e inseguridad que a su vez favorece formas de egoísmo colectivo». Cuando las personas se vuelven autorreferenciales y se aíslan en su propia conciencia, acrecientan su voracidad. Mientras más vacío está el corazón de la persona, más necesita objetos para comprar, poseer y consumir. En este contexto, no parece posible que alguien acepte que la realidad le marque límites. Tampoco existe en ese horizonte un verdadero bien común. Si tal tipo de sujeto es el que tiende a predominar en una sociedad, las normas sólo serán respetadas en la medida en que no contradigan las propias necesidades. Por eso, no pensemos sólo en la posibilidad de terribles fenómenos climáticos o en grandes desastres naturales, sino también en catástrofes derivadas de crisis sociales, porque la obsesión por un estilo de vida consumista, sobre todo cuando sólo unos pocos puedan sostenerlo, sólo podrá provocar violencia y destrucción recíproca.

208. Siempre es posible volver a desarrollar la capacidad de salir de sí hacia el otro. Sin ella no se reconoce a las demás criaturas en su propio valor, no interesa cuidar algo para los demás, no hay capacidad de ponerse límites para evitar el sufrimiento o el deterioro de lo que nos rodea. La actitud básica de autotrascenderse, rompiendo la conciencia aislada y la autorreferencialidad, es la raíz que hace posible todo cuidado de los demás y del medio ambiente, y que hace brotar la reacción moral de considerar el impacto que provoca cada acción y cada decisión personal fuera de uno mismo. Cuando somos capaces de superar el individualismo, realmente se puede desarrollar un estilo de vida alternativo y se vuelve posible un cambio importante en la sociedad.

Papa Francisco
Encíclica Laudato Si'



Papa Francisco
Encíclica Laudato Si'